

Petronorrek eta O.C.O Technology bazkideak CO₂ atzitzen duten eraikuntzako materialen lantegia inauguratu dute

- Lantegi berriak Petronorren findegian eta beste hainbat lekutan atzitutako CO₂ erabiliko ditu, baita hondakinak ere, karbono-aztarna negatiboa duten agregakin sintetikoak ekoizteko
- Hauxe da ekoizpen-prozesuan CO₂ atzitzen duten eraikuntzarako materialak fabrikatuko dituen Europar Batasuneko lehenengo lantegia
- Prozesu horiek guztiak ekonomia zirkularraren adibide garbiak dira, eta CO₂ isurpenak murriztuko dituzte, baita hondakinak ere, hauen balorizazio materialaren bitartez
- Proiektu honek 20 milioi euroko inbertsio izan du, eta Petronor (% 75) eta O.C.O Technology (% 25) ditu akziodun
- Ekimenak 20 lanpostu berri sortuko ditu

Bilbon, 2026ko maiatzaren 21ean. Petronorrek, karbonoaren atzipenean, eraikuntza jasangarriko produktuetan eta hondakinen tratamenduan espezializatuta dagoen O.C.O Technology enpresaren eskutik, harrobiko agregakin naturala ordeztu eta eraikuntza-sektorea deskarbonizatzen lagunduko duten agregakin sintetikoak fabrikatzeko Europa kontinentaleko lehen lantegia inauguratu du.

Biscay Eco Aggregates izeneko lantegi honek eraikuntzarako material jasangarri bihurtuko du karbonatazio bizkorreko teknologiaren (ACT) bidez, zabortegira bidaltzea beste aukerarik ez zeukan hondakina, ekonomia zirkularra sustatuz, ingurunean dagoen CO₂ murriztuz eta lehengai naturalen kontsumoa gutxituz.

Proiektu hau modu estrategikoan kokatu da Bilboko Portuan Petronorren industria-ekosisteman integratzearen, lehengai eta produktuen garraioa optimizatzeko aukera ematen duen logistika- zein portu-azpiegiturarako sarbide zuzena eskainiz.

Era berean, lantegiak 20 lanpostu berri sortuko ditu.

Instalazio honek isurpenak murrizten eta baliabide naturalak zaintzen lagunduko du: urtean hondakinetatik ateratako 50.000 tona errauts termiko berrerabili, 6.000 tona CO₂ atzitu eta 125.000 tona ekoagregakin ere ekoitzi ahal izango dira. Era berean, proiektu honi esker, urtero 170.000 tona agregakin naturalen erabilera saihestu ahal izango da.

CO₂ mineralizatzeko lantegi honen akziodunak dira Petronor (% 75) eta OCO (% 25), eta 20 milioi euroko inbertsioa izan du.

CO₂ mineralizatzeko lantegiaren funtzionamendua

Lantegi honek industria-prozesuetatik atzitutako CO₂ erabiltzen du, Petronorren findegikoa kasu, baita hondakinetatik ateratako errauts termikoak ere. Ekoizpen-prozesuan, O.C.Oren teknologiaren bidez, CO₂ak hondakinekin kimikoki erreakzionatu eta karbono-aztarna negatiboa duten agregakinak lor daitezke, eraikuntza-sektoreko hormigoia, azpiegiturak, ingeniariaritza zibila eta elementu aurrefabrikatuak egiteko lehengaitzat erabiltzeko.

Prozesu honek modu azkarrean erreproduzitzen du milaka urte behar dituen fenomeno naturala, eta honen bidez lortutako amaierako produktua guztiz egokia da hainbat aplikaziotarako bere ezaugarri arin, iraunkor eta egonkorrei esker.

Gainera, O.C.O Technology-ren karbonatazio bizkorreko teknologiaren (ACT) laguntzaz, lantegi honek agregakin naturalak ateratzeko beharra murriztu eta paisaia mantentzen lagunduko du, baita ekonomia zirkularra ere, gizarteak sortu eta zabortegean amaitu behar zuten hondakinak (herritarrok edukiontzietan uzten dugun zaborra) erabiliz.

Egun, O.C.O Technology da mota horretako hondakinen tratamendurako prozesu teknologikoan “hondakinen amaiera” baldintzatuz onartuta daukan munduko enpresa bakanetakoa, amaitutako agregakina “produktutzat” sailkatuz.

José Ignacio Zudaire Petronorreko zuzendari exekutiboaren hitzetan, “lantegi hau dugu, zalantza izpirik gabe, lankidetzan, teknologiaren aldeko apustuan eta industriaren bultzadan oinarritutako garapen-ereduaren adibide garbia. Jasangarritasuna oinarri duen proiektua da, ekonomia zirkularren adibide % 100ean, eta lurraldeko enpresa trakziogileen eta nazioarteko konpainien arteko lankidetzari esker Bizkaiak proiektu berriak ezartzeko duen erakargarritasunaren erakusgarri. Martxan jartzeko, beharrezkoa da ekosistema sendoa izatea: inbertsio horiek bultzatuko dituzten politika publikoak, hondakinen tratamenduan urteak eginak izan eta beharrezko lehengai hornitzeko gai diren enpresak, eta jasangarritasunarekin konprometitutako ingurunea eta merkatua, egun eskuragarri jarri dugun ibilbide berri honen aldeko apustua egiteko prest daudenak”.

Aitor Arzuaga Petronorreko transformazio-proiektu berrien zuzendariaren arabera, “deskarbonizazioaren bidean, gure estrategia bigarren eraldaketa handi bati heltzetik igaroko da, ekonomia zirkularra oinarrietako bat izanik. Proiektu hau guztiz bat dator ikuspegi horrekin, hondakinak eta CO₂ lehengai (ekoagregakin) bihurtuko ditugun heinean, eta horren laguntzaz, hondakinak eta CO₂ isurtzearen arazoa saihestuko dugu, baita agregakin natural gehiago erabili beharra ere, horrek dakarren inpaktuarekin”.

Steve Greig O.C.O Technology-ko zuzendari exekutiboaren esanetan, “Erresuma Batuan ezagunak, errespetatuak eta liderrak gara hondakinetatik sortutako milaka tona errautsen birziklapenean, eta urtean 250.000 tona berrerabiltzea lortzen dugu, merkatu britainiarraren % 35 inguru. Poz-pozik gaude Petronorrekin elkartzeaz, O.C.Oren balio eta ikuspegi berberak partekatzen baititu mota honetako Europar Batasuneko lehenengo instalazio honetan. Urtero hondakinetatik ateratako milaka tona errauts termikoren tratamenduari heldu diogun arren, gure teknologia hainbat aplikaziotan erabil daiteke, eta gogotsu gaude etorkizunean instalazio gehiago izateko aurreikuspenarekin”.

Elixabete Etxanobek, Bizkaiko Ahaldu Nagusia, adierazi duenez, “honelako proiektuak enpresa-ekosistema berritzaile baten emaitza dira, Petronor bezalako enpresena, zeinek ez duten soilik aberastasuna eta enplegua sortzen balio-kate zabal osoan zehar, baizik eta Bizkaia lidergo-posizio batean kokatzen duten. Hemen gertatzen da enpresek eta erakundeek modu naturalean elkarlanean jarduten duten esparru bat zaintzen dugulako, deskarbonizazioa eta trantsizio energetikoa gidatzeko ambizioa partekatuz”.

Europako zuzentarauak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak betez

Proiektu honek hainbat sari jaso ditu; lehena eta garrantzitsuena, Europako Batzordearen Innovation Fund 2020 programaren finantzaketa, 232 proposamenen artean proiektua karbono gutxiko teknologiak garatzeko ekimenik berritzaileenetakotzat jo eta 3,2 M€ eman diona. Horrez gain, Indartu programarako hautatu eta 1.160.000 euro lortu ditu, eta INNPULSO SAREAK berrikuntza teknologikotzat aitortu du 2024ko maiatzean BECen antolatutako VII. edizioan.

2018an, Europar Batasunak (EB) ontzat jo zituen Euroganberak ezarri eta estatu kide guztientzat lotesleak diren zenbait helburu, ekonomia zirkularrari buruzko lege-pakete baten bidez.

Pakete horretan zabortegi, hondakin, ontzi eta tresna elektriko eta elektronikoei buruzko Europar Batasuneko zuzentarauak aldatu eta epe finkoak dituzten konpromisoak ezarri dira hondakinen birziklapenez eta zabortegien murrizketaz.

Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta, araudiak argi utzi du 2035ean hondakinen % 10 baino ezin izango dela zabortegira eraman. Testuinguru honetan, industriak eta teknologiak bat egin dute lantegi honetan gure gizartearen eskaerari erantzun ahal izateko.

Petronorri buruz

Petronor Bizkaiko industriaren eragile nagusia da, zuzeneko enplegua ematen die 940 pertsonari eta zeharkako enplegua beste 6.000 baino gehiagori. Azken bost urteetan, 1.200 milioi euro baino gehiago inbertitu eta 201 pertsona kontratatu ditu.

Bizkaiko lurraldeari egiten dion ekarpenaren isla da Bilboko Portuko trafikoan duen pisua, % 40koa alegia, eta harexeri dagokio foru-ogasunen guztizko diru-bilketaren % 5,5. Petronorrek hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatu den 936 milioi euroko ekarpena egin du.

O.C.O Technology-ri buruz

O.C.O Technology enpresa Erresuma Batuan sortu zen 2010ean, 20 urteko unibertsitate-ikerketaren ondoren. Egun, O.C.O Technology-k 3 ACT lantegi ditu jardunean Erresuma Batuan, eta guztien artean, 250.000 tona hondakin termiko inguru prozesatu eta 600.000



tona agregakin manufakturu bano gutxixego ekoizten dituzte. 50 milioi liberako fakturazioa du, eta 130 langile, batez ere Erresuma Batuan. Nazioarteko negozioa ere garatzen ari da Japonian, Espainian, Ipar Amerikan eta Australian, O.C.O International filialaren bitartez.

2024an, O.C.O Technology-k Enpresa arloko Garapen Jasangarriaren King's Saria irabazi zuen, karbonoaren atzipenean zein eraikuntzarako produktu jasangarrien fabrikazioen duen lidergoa aintzat hartuz.

www.petronor.com

oco.co.uk/

www.b-ecoaggregates.com/

VK Comunicación

Informazio gehiago:

Virginia Knörr Barandiaran
944 01 53 06 / 629 156 031
virginia@vkcomunicacion.com